

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	MATERIALAK HIGIENE-ETA SEGURTASUN-KONDIZIO OPTIMOETAN BANATZEKO EKIPOAK ETA INSTALAZIOAK PRESTATZEA	Iraupena	60
		Espezifikoa	
Kodea	UF0438		
Lanbide-arloa	KIMIKA		
Lanbide-eremua	Farmakokimika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Farmaziako produktuen eta antzekoen prestaketa	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Materialen banaketa	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Farmaziako produktuak eta antzekoak egiteko pisaketa-eragiketak	Iraupena	60
	Sailkapena eta erregistroa farmaziako produktuak eta antzekoak egitean higie- eta segurtasun-kondizio optimoetan		60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0049_2: EKOIZPEN-PROZESURAKO MATERIALAK BANATZEA gaitasun-ataleko LB1 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ekoizpen-eremuaren sarreran segurtasun- eta higie-irizpideei jarraituz jardutea, eta produktuen segurtasun-orriak erabiltzea.

- E11.1 Eragiketak egiteko norbera babesteko behar diren jantziak eta ekipoak deskribatzea, eta prozesuaren eta/edo produktuaren arrisku kimikoekin erlazionatzea.
- E11.2 Norbera babesteko ekipoak ondo hautatzea eta erabiltzea.
- E11.3 Norbera babesteko ekipoak egoera onean daudela kontrolatzea.
- E11.4 Segurtasun-orrien eta haien atal garrantzitsuen helburua deskribatzea.
- E11.5 Erabili beharreko produktuen segurtasun-orriak erabiltzea.
- E11.6 Erabiliko diren produktuak identifikatzea.

A2: Esperimentazioaren eta manipulazioaren alorretan, ordena eta doitasuna zaintzen direla eta garbiketa-prozesuak ezagutzen direla erakustea.

- E12.1 Lanpostua garbi eta ordenan mantentzea, ekipoetan eta osagarrietan garbiketa-teknikak aplikatuz.
- E12.2 Lan-ekipoak garbi eta behar bezala funtzionatzen mantentzea.
- E12.3 Erabiltzen diren garbiketa-prozedurak, materialak eta agenteak deskribatzea.
- E12.4 Etiketatze egokia erabiliz, garbiketa-prozesua behar bezala egiten dela erregistratzea.
- E12.5 Eremu eta ekipoetan laginak hartzea, garbiketak egiaztatzeko.
- E12.6 Prozeduren segimendu egokia eginez, eremuak eta ekipoak kutsa daitezen saihestea.

A3: Materialak banatzeko behar diren ekipoak eta instalazioak prestatzea.

- E13.1 Erabili beharreko ekipoak eta instalazioak identifikatzea.
- E13.2 Materialak banatzeko ekipoak deskribatzea (baskulak, balantzak, mikrobalantzak, sistema bolumetrikoak, ponpa dosifikatzaileak, etab.).
- E13.3 Biltzeko eta egokitzeko materialak identifikatzea eta deskribatzea.
- E13.4 Materialak banatzeko ekipoek zuzen funtzionatzen dutela egiaztatzea.

Edukiak

1. Fabrikazio-materialak dosifikatzeko lan-eremuak

- Farmaziako produktuen eta antzekoen ekoizpenean, eremuak bereiztea.
- Lan-eremuak isolamendu-mailaren arabera sailkatzea:
 - Sailkapen-irizpideak (produktuen toxikotasuna, behar den esterilitatea, eta abar).
 - Eremu-motak, airearen sailkapenaren arabera.
 - HEPA iragazkiak.
- Fluxu laminarreko kabinak:
 - Deskribapen orokorra eta ohiko erabilera.
 - Abantailak eta mugak.

- Lan-metodologia orokorra.
 - Areto garbiak:
 - Deskribapen orokorra eta ohiko erabilera.
 - Areto garbien diseinua, erabileraren araberakoa.
 - Aire- eta iragazki-sistemen mantentze-lanak.
 - Areto garbietako lan-protokoloak.
 - Ekipoak eta eremuak identifikatzea.
- 2. Materialak banatzeko tresnak, ekipoak eta ontziak, farmaziako produktuen ekoizpenean**
- Aire- eta iragazki-sistemak.
 - Materialak dosifikatzeko erabiltzen diren ekipoen deskribapena:
 - Pisatzea: baskulak, balantzak, mikrobalantzak eta abar.
 - Beste batzuk: sistema bolumetrikoak, ponpa dosifikagailuak eta abar.
 - Dosifikazio-ekipoak erabili aurretiko egiaztapenak.
 - Ontziratzeko eta egokitze materialak:
 - Saillapena.
 - Ezaugarriak.
- 3. Materialak dosifikatzeko ekipoak eta eremuak garbitzeko eragiketak**
- Dosifikazio-ekipoak garbitzea.
 - Dosifikazio-ekipoak garbitzeko eragiketen erregistroa.
 - Prozesuetako ordena.
 - Aretoa saillapenaren arabera garbitzea.
 - Garbiketaren aurretik eta ondoren egiaztatu behar diren parametroak.
 - Kutsadura gurutzatua.
 - Ekipamenduen garbiketa:
 - Eremuak garbitzea eta egokitzea.
 - Lan-jantziak behar bezala erabiltzea.
 - Ekipo eta eremuak garbitzeko eragiketen erregistroa eta etiketatzea.
- 4. Segurtasuna, higieena eta babes, materialen dosifikazioan.**
- Materialen segurtasun-datuen orriak (MSDS) erabiltzea eta interpretatzea.
 - Behar bezala fabrikatzeko arauak: oinarriko kontzeptuak
 - Laneko arropa: txanoa, jantzia, eskularruak, oinetako estalkiak, segurtasun-oinetakoak eta abar ongi erabiltzea.
 - Norbera babesteko elementuen erabilera.
 - Eremu saillatuera sartzeko arauak (arropa eta apaingarriak: eraztunak, belarritakoak, makillajea, eta abar).
 - Gidaliburuak, erregistro-liburuak, etiketak eta abar betetzea.
 - Lan-prozedura normalizatuak erabiltzea.
 - Segurtasun-arauen sistematika.
 - Segurtasun-seinaleak.
 - Alarma- eta babes-sistemak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Farmaziako produktuen eta antzekoen prestaketa.